# Denbora-







## 2 Ezkutuko hitza

Xubanek lau arreba ditu. Hizki artean haien izenak daude ezkutaturik. Mugitu hizkiak lekuz, eta lau izenak agertu zaizkizu.

JOSENU ☐☐☐☐☐☐

MATEI ☐☐☐☐☐

LEIER ☐☐☐☐☐

ENA ☐☐☐

## 3 Aurkitu irudian

Mirarik paseotxo bat eman du hondartzatik, eta askotariko maskorrak jaso ditu. Hiru maskor, ordea, errepikatu egiten dira. Zein?



## 1 Ezberdintasunak

Urtarrila, otsaila, martxoa... Eskolan hilabeteen izenak ikasten ari direla eta, bi marrazki egin ditu Asierrek. Aurkitu bien artean dauden zazpi ezberdintasunak.

Erantzunak: **2.-** Josune, Maite, Leire eta Ane. **5.-** a eta g.

# -pasak

## 4 Simetriak

Ander Gabonetako zuhaitza marrazten hasi da, baina erdi eginda utzi du. Amaituko eta margotuko al duzu marrazkia?



## 5 Bikiak

Upeltegiko botilak txukuntzen aritu da Joseba goizean. Botila guztiak desberdinak zirela uste zuen, baina bi berdinak direla ohartu da. Zein?




## Lehen hizkiak

Ea hiztegitxo hori! Letra batekin zenbat hitz sortzeko gai zarete? Esaldi luze bat osatzeko moduan? Eragin buruari!




**1** Jokalari batek letra bat aukeratu, eta ozen esango du, gainerako jokalariek entzuteko moduan. E letra, esate baterako.

**2** Gainerako jokalariek esaldi bat pentsatu beharko dute, aldez aurretik erabakitako denboran. Esaldiko ahalik eta hitz gehienek E letraz hasi beharko dute. Kasu honetan, horrelako zerbait izan liteke: Eguraldi ezegonkorra egongo dela esan du eguraldi gizonak.

**3** Jokalari bakoitzak asmatutako esaldia esango du. Nork erabili du E letraz hasten den hitz gehien? Hark irabaziko du partida. Esaldiek ez dute zertan zentzurik izan, baina ongi osatuak egon behar dute.

**4** Lehen partidako irabazleak aukeratuko du hurrengo letra. Letra esan orduko, hasi esaldia osatzen!